

SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
MIKROBIOLOGIA

HIZLARIA: ANDER GONZALEZ SARRIÁ DK.

MODERATZAILEA: MIKELE MACHO AIZPURUA DK.

2020KO OTSAILAREN 28AN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA)

KASU KLINIKOAK

Ondoren aurkezten diren kasu klinikoak Basurtuko Ospitaleko Mikrobiologia Zerbitzuko kanpo kontsultetako hiru pazienteei dagozkie:

1. 35 urteko gizonezkoa. Aurrekari pertsonal garrantzitsurik gabea, lehenengo aldiz dator gure kontsultara. Duela bi astetatik zakil glandean zauri ez mingarriak eta iztaiondoetan kozkor gogorak nabaritu ditu, azterketa fisikoan bestelako datu nabarmenik aurkeztu gabe.
2. 52 urteko emakumezkoa. Ginekologiako azterketa orokor batean kondilomak diagnostikatu dizkiotela eta, Mikrobiologiako kontsultetara bidali dute. Kontsultan bertan, kanpo genitaletako ezpain nagusietan itxura desberdineko lesioak aurkezten ditu: oinarri eritematotsu baten gainean besikulak ditu, horietako batzuk espontaneoki apurtu dira, zauri mingarriak eraginez. Pazienteak dionez, oraingo hau ez da lesio horiek aurkezten dituen lehenengo aldia.
3. 47 urteko gizonezkoa. Aurrekari pertsonalen artean, *Neisseria gonorrhoeae*, *Chlamydia trachomatis* eta B hepatitisaren birusagatiko infekzio ohiak dira orokorrean garrantzitsuenak (ez da kontsultara datorren lehenengo aldia). Badirudi orain dela hainbat egunetatik uzki ingurua mingarri nabaritu duela, bai eta sabeluste unean zein espontaneoki, ondestetik odola eta mukia kanporatu dituela ere.

Hiru kasuak ezagututa, saiatu horien inguruan ondorengo galderei erantzuten:

1. Zein ezaugarri amankomun aipatuko zenituzke hiru pazienteon artean?
2. Zein aukerei emango zenieke lehentasuna zure diagnostiko bereizgarrian?
3. Ezagutzen al duzu aurreko bi galderak batera erantzuteko lagungarria den tresna diagnostikorik?